

## **20. Buletina**

**Maiatzak 2015**

# **LAN OSASUN BULETINA**

### **AURKIBIDEA:**

- 1. LAN SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO 2015-2020  
EUSKAL ESTRATEGIA**
- 2. EDOSKITZE NATURALEKO ARRISKU-PRESTAZIOARI  
BURUZKO EPAIAK**
- 3. BONUS GARAIA DA**
- 4. LAN-ISTRIPU HILGARRIEN TAULA HEGO EUSKAL  
HERRIAN, 2015KO URTARRILATIK- MAIATZARTE**

## **20. Buletina**

**maiatzak 2015**

### **1. LAN SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO 2015-2020 EUSKAL ESTRATEGIA:**

#### **LAN OSASUNA BABESTEKO BIDEAN AURRERAPASORIK EZ.**

Eusko Jaurlaritzak onetsi berri du "Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Estrategia", 2015-2020 urtealdirako. Txosten horretan jasotzen dira urte bitarte horretan garatu behar diren ildo nagusiak.

ELAk gaizki deritzo txostenari. Propaganda alde batera utziz gero, ez da benetako aurrerapausorik eman funtsezko gaitan. Horrela salatu genuen gure ekarpenak egitearekin batera txostena prestatzeko prozesuan. Hala ere, gure proposamenetako bat ere ez dute kontuan hartu txostenaren azken idazketan. Osalaneko zuzendariaren arabera, arrazoia zera da: "gure proposamenak izaera politikokoak ziren, eta Estrategiak, aldiz, izaera teknikoa izan behar du funtsean".

Izan ere, gure ekarpenak politikoak ziren, gure azken balioespena ere politikoa den bezala. Gure ustez ezin da bestelakoa izan, zeren etorkizunerako lan-osasunaren politikak ezarri nahi dituen estrategia bat programa politikoa izan behar da, dagokion garapen teknikoaz osatua.

Gure balioespena hurrengo puntu hauetan sailkatu dugu:

#### **1.- Jarraipen hutseko estrategia.**

Aurreko urtealdiko strategiari jarraitu dio itsu-itsuan, berriaz onartu baitute ezin izan dela behar bezala ebaluatu aurreko strategiaren betetze-maila. Hala eta guztiz ere, arlo guztietan aurrera egin dela esatera ausartu dira. Gu ez gatoz bat baieztapen horrekin, zenbait arlotan ezta abiatu ere ez baita egin.

## **2.- Diagnostiko irreal batean oinarritu da.**

Gure ustez oinarri hartu duen diagnostikoa baikorregia da. Lan-istripuetan eta lanbide-gaixotasunetan jaitsiera nabarmena egon dela hartu du abiapuntu.

Lan-istripuen kopurua gutxitu dela egia izan arren, onartezina izaten jarraitzen du; gainera, ezbeharrak gutxitzeko arrazoi nagusia ekonomiaren jarduera moteltzea izan da, aplikatu diren politika publikoen eragina baino.

Lanbide-gaixotasunei dagokienez, ez zaie ematen horrelako estrategia batean eman beharko lieketen garrantzia. Lanbide-gaixotasunak ez dira urritu, alderantziz, eta benetan direnak baino askoz gutxiago deklaritzen dira. Egoeraren larritasunari dagozkion neurriak hartu behar dira.

## **3.- Prekarietatea eta krisia ez dira islatu estrategia horretan.**

Estrategia onetsi den testuinguruan krisia dago, eta krisi horrek oso ondorio txarrak eragin ditu langileen osasunaren babesean. Txostenean krisiaren aipamenak egiten badira ere, arazoaren nondik norakoa ez da, gure iritziz, egokiro haztatu.

Krisiaren ondorioz, eta gobernuek onetsi dituzten ondoz ondoko murrizketen eta erreformen eraginez prekarietatea hedatuz joan da, eta sortzen den enpleguaren kalitatea lorrinduz (aldi baterako kontratuak, lanaldi partzialekoak, sasi-autonomoak, neurriz gaineko azpikontratazioa...). Prekarietatearen aipurik ez da egin estrategia-proposamenean, lan-merkatuaren ezaugarri nagusia izan arren.

## **4.- Lan-harreman eredugarri batean oinarritu da.**

Laneko ametsetako harreman horretan lan-osasuna "interes partekatuko esparruan kokatzen da, eta hor langileen partaidetza funtsezkoa da".

Teorian hori horrela izan beharko litzateke, baina lan-harremanak asimetrikoak dira, eta oraingo testuinguruan enpresarien aldeak gero eta botere handiagoa du. Langileen partaidetza, lan-osasunaren arloan, oso mugatua da oraindik kasu gehienetan. Hortaz, lan-osasuna interes partekatuko gaia izatetik enpresarien eta langileen arteko interesen gatazka izatera aldatu da.

## **5.- Aurrekontu-murrizketek lan-osasunaren atalean izan dituzten eraginak bazter batera utzi dira.**

Osalan-en aurrekontua nabarmen murriztu da azken urteotan. Murrizketa hori Eusko Jaurlaritzaren erabaki politikoa da, eta argiro adierazi du gai hori ez dela lehentasunezkoa. "Doikuntzak sektore pribatuan" eta "murrizketak sektore publikoan" ezinbestez egin beharreko eginkizunak balira bezala aipatzen dira. ELAren iritziz lan-osasunaren atala murriztea, BPGaren %0,02ra iristen ez den atala izanik, erabaki politikoa da, eta arlo hori are maila apalago batera baztertzea dakar bere baitan. Ez da ezinbesteko erabakia, beste erabaki batzuk har litezke baliabide publikoak igotzeko, edo bestela gastu publikoan dagoen lehentasunen hurrenkera aldatu liteke.

Gerora begirako galdera zera da: Zenbat baliabide —langile zein diru— bideratuko da 2015-2020 Estrategia garatzeko? Lan-osasunean murrizketa gehiago egingo al da? Gaur egungo baliabideekin ezinezkoa da kalitatezko estrategia bat garatzea, ezin da goraiatzeko moduko aurrerapausorik eman.

## **6.- Enpresariak lan-osasunaren gainean duten ikuspegia.**

Enpresariak lan-osasunaz hain berezko duten ikuspegia hartu da abiapuntu, enpresen lehiakortasunean eta bikaintasunean hobetzeko modu gisa hartu baita.

Guretzat lan-osasunaren xedea bizi osasuntsua ziurtatzea da, enplegu duin eta kalitatezkoaren bidez, pertsonak erdigunean jarritz.

## **7.- Osalan-eko Kontseiluan gure parte ez hartzea auto-bazterketa moduan hartu dute.**

Gizarte-eragileen arteko lankidetzaren atalean, eragileoi berebiziko erantzukizuna eskatu zaigu enpresa-eredu osasungarri eta lehiakor bat lortzeko, eta beste puntu batean, zain utzitako gaien artean, aipatu da zenbait eragile “auto-baztertu” direla Osalan-eko Kontseilu Nagusitik.

Gobernuak ondo dakienez, kontseilu horretan parte hartzeari utzi bagenion, harturiko erabaki politiko jakin batzuegatik izan zen, lan-osasunaren eredu propio bat izateko bidean atzerapausoak ematen baitziren. Gobernu berriak ez ditu berraztertu erabaki haiek, horregatik etenda daukagu gure partaidetza, baina horrek ez du esan nahi auto-bazterketa egiten dugunik edo erantzukizunik ez dugunik.

## **8.- Gobernuak sailen arteko koordinazioa noiz burutuko zain.**

Behin baino gehiagotan aipatzen da gobernuak sailen arteko koordinazioaren beharrezkoa, eta egoera hobetu dela esaten da, hobetzeko tarte oraindik badagoela aitortu arren.

Gure ustez, atal horretan ez da aurrera egin ia inongo aldetik. Osalaren eta Lan Ikuskaritzaren (dagoeneko transferituta) arteko koordinazioa gutxienezkoa da. Beste erakunde batzuekin, Osakidetzarekin adibidez, dagoen koordinazioa are txarragoa da.

Osasun Sailari dagokionez, onartezina iruditzen zaigu lanbide-gaixotasunak jakinarazteko sistema egokiro garatu gabe jarraitzea. Horrek aditzera ematen digu lanbide-gaixotasunen problematika ez dela oraindik lehentasunezkoa, balioespen honen hasieran azaldu dugun bezala.

## **9.- Gobernuak ez da erreferentzia bat lan-osasunaren arloan.**

Estrategian jasota dago gobernuak, lan-osasunaren arloan, erreferentzia-puntu bat izan behar dela, eta norabide horretan aurrera egiten ari dela.

Gobernuak egiten duena baino askoz gehiago egin dezake, eta gaurkoz behintzat ez da erreferentzia-puntua. Politika publikoen sustatzaile den aldetik, zeharo aldatu beharko lituzke

politika horiek, eta politikak garatzeko behar besteko baliabideak bideratu. Enplegatzaile ere den aldetik eredugarria izan behar da. Eta obra publikoa sustatzean oso zorrotza izan beharko zen prebentzio-arauak betetzen diren begiratzen, obretako garapen-aldi guztietan.

Bada, egoera gutxiegitzat jo dezakegu hiru aldeetatik.

Baina bereziki aipatu beharrekoa da obra publikoaren atala. Proposamenean obra publikoaren egoera hobetzeko beharra jasota dago, baina neurriek ez dute arazoaren larritasuna arindu. Administrazioek sustaturiko obra publikoen enkanteetan, beherezko lizitazioek bultzatu egiten dute hitzarmen kolektiboak eta prebentzio-arauak ez betetzera. Arlo horretan ez-betetze nabarmenak egiten ari dira, langile askoren bizia arriskuan jarritz.

## **10.- Osasun psikosoziala, bazter atala oraindik.**

Atal hau ez da berria, baina oraindik ez da garatu.

Garapen hori galarazten duten faktore batzuk bai aipatu direla, baina ez da aipurik egin, ordea, arlo horretan politika eraginkorrak garatzeko borondate politikorik ezaz. Osalanek eta Lan Ikuskaritzak ez diote bideratzen atal honi behar besteko baliabiderik, eta enpresei ez zaie benetan exijitzen langileen osasun psikosoziala zaintzea.

Gehienetan enpresek ez dute egin nahi arrisku psikosozialen benetako ebaluaziorik, ezta aldaketarik ere lanaren antolamenduan. Itxurak gordetzera mugatu dira, protokolo estandarren bidez; baina ez dute balio arazoa konpontzeko.

## **2. EDOSKITZE NATURALEKO ARRISKU-PRESTAZIOARI BURUZKO EPAIAK**

EAEko Goi-Auzitegiko hainbat epaitan aitortu egin zaie Gipuzkoa Emergentziak UTE (Ambuibérica) enpresako langile batzuri **edoskitze naturaleko arrisku-prestazioa** jasotzeko eskubidea. Edoskitze aldian dauden amak dira hauek, *“osasun-garraioko teknikari”* postuan *“laguntzaile espezializatu”* gisa zeudelarik, ambulanzian 12 orduko txandatan (gauetz edo egunez) larrialdiko osasun-arreta funtzioak egiten ari zirenak.

Epai horien oinarriak honakoak dira, besteak beste:

- 1.- Txandakako lana ezin da bateratu edoskitze naturalak eskatzen duen **harraldi maiztasunarekin**.
- 2.- Jarduera bera garatzen den baldintzek **ez dute ahalbidetzen, ez bermatzen**, ama-esnea **behar bezala atera eta kontserbatzea**.
- 3.- Gaueko lanak loari eragiten dio, eta horrek, halaber, langilearen **produktzio ahalmena murrizten du**.
- 4.- Enpresan **ez dago** edoskitze aldirako bateragarri den eta arriskurik ez duen **beste lanposturik**.

5.- Hainbat auzitegik **aitortu izan dute antzeko egoerarik** kategoria profesional, funtzio eta txandakako lana berdina edo antzekoa zen beste langile batzuren kasuan.

Oraingoan auzitegiak ebazten du **lanpostuaren ezaugarri batzuk edoskitze naturala egiteko arriskua** eragiten dutela; hortaz, Lan-Arriskuen Prebentzioko araudian jasota dagoen amatasuna babesteko betebeharra medio, eta lan-baldintzak egokitu edo aldatu ezin direnez, **langile hauei** “egoera babestura” pasatzeko **eskubidea aitortzen zaie**, horrenbestez edoskitze naturalerako arrisku-prestazioa jasoko dutelarik.

Haatik, mutualitateek honelako prestazioak **ez onartzeko estrategiari** eusten diote: eskariak ukatzen dituzte eta epaiak langilearen aldeko direnean, helegitea sartzen dute.

Honi dagokionez, aipagarria da ELAko zerbitzu juridikoek egiten duten lan garrantzitsua, helburua mutualitateen praktika okerrak zuzentzea delarik.

### **3. BONUS GARAIA DA.**

Apiriletik maiatzak erdirarte 2015ko Bonus kanpaina martxan jarri da. Bonusa, lan ezbeharren kontra jarduera ezberdinak egin dituzten enpresek dirulaguntza bat lortzeko sustapen sistema bat da.

Lor dezaketen diru kopurua kontutan izatekoa da: gertakizun profesionalen kuoten deskontua %10era ere iritsi daiteke. Enpresa txikietan honek ez du diru askorik suposatzen, baina langile askoko enpresetan lortutako diru kopurua benetan garrantzitsua izan daiteke.

Enpresek dirulaguntza hau eskatzeko irizpide batzuk bete behar dituzte. Horietariko bat, “autodeklarazioa” izeneko dokumentua da. Bertan, enpresak kuestionario baten bitartez prebentzio arloan egin dituen jarduerak ziurtatzen ditu.

Dokumentu hau normalean mutualitateak betetzen du eta gero enpresari bidaltzen dio. Geroago enpresak prebentzio delegatuei sinatzeko eskatzen die, beren sinadura barik ezin dutelako dirulaguntza hori jaso. Puntu honetan lantoki bakoitzean lan osasun eta segurtasunean egindako jardueren errepassoa egin behar da:

- enpresak prebentzio delegatuak kontutan hartzen baldin baditu, bai partehartzean baita egindako aholkuetan ere; hobekuntzak egiten badira, dokumentu honi gure oniritzia ematea interesatzen zaigu, beti ere lortzen den diru hori prebentzio gaietan erabiltzen dela ziurtatuz.

- enpresak ordea, ez baditu prebentzio delegatuen eskaerak kontutan hartzen, aukera paregabea dugu Bonusa negoziatzeko tresna bezela erabiltzeko, lan osasun eta segurtasunean hobekuntzak lortzeko helburuarekin.

Gure sinadurak garrantzi handia du Bonus-ean, beraz ez galdu aukera.

#### 4.- LAN-ISTRIPU HILGARRIEN TAULA HEGO EUSKAL HERRIAN, 2015KO URTARRILATIK- MAIATZARTE

HEH	LAN-ISTRIPU HILGARRIAK
BIZKAIA	8
GIPUZKOA	2
ARABA	0
NAFARROA	5
<b>GUZTIRA</b>	<b>15</b>

\*Maiatzak 22arte